

ZARAUZ

(Jarraipena.)

Gipuzkoa-ko beste erri atsegiñ eta doatsuak bezela, Zarauz-ko erri leñargiak badu eskutarma, bere kondaira zarraren agergarriya.

Goi aldian, zeru urdiñ-urdiñean asaltzen du urrezko gaztelu eder, apaña; beko aldian berriz, zuaitz galanta bere oñetan otso beltz bat daukala.

Azkoren iritziyan eskutarma oriek esan nai digu: antziñako denboretan orain Zarauz-ko erria dagon inguru guziak chara utza zirala, iñor bizi etzala, ta otsuak izan oi zirala bertako biztanle. Geruago (eskutarman berago) alcha zala leku artan jauregi edo gaztelua, ta gaztelu artatik sortu zala azkenik Zarauz-ko erri ospetsua. Itz guchitan esateko lenbizi chara, gero Zarauz jauregiya, ta azkenik Zarauz erriya.

Eche edo jauregi bakar bakarretik sortu zan beraz Zarauz-ko erriya, ta aur chiki ergel batetik gazte mardul eta galanta egiten dan bezela; ala lenbizi chabola koškor batzuek, eta gero eche ta jauregi naikoa; asitzen, zabaltzen ta aunditzen joan zan, erririk politenetako, alayenetako ta apañenetako bat egin arte.

Piškabat koskortu zanian, bere burabaren jabe izan zeyen erregeak eman ziyon Donostiko erriaren lege edo fueroa, ta onen bitartez ipiñi zan uri-batzarra, bi alkate ta beste iru batzar-lagunekin.

Gero, 1766^{-garren} urtian, beste iru batzar-lagun geyago izateko eskubidea eman zizayon, ta mota ontan iraun zuben, ekaitz gaiztoak euskal lege-ko suaitz maitagarriya lurperatu zuben arte. Geroztik, galdurik Euskal-erriak lenoko jabetasun ta nagusitasuna, España-ko erriak bezela osatzen du Zarauz-ek bere uri-batzarrea.

Lengo denbora zorionekoetan, Gipuzka-ko batzar nagusiya biltzen

zan errietako bat, Zarauz zan, eta erabakide gogoangarriak artu ziran erri ontan egin ziran billaldietan.

Euskal biyotzetan ez da galdu oraindik oitura maitagarri ayen oroipena, gogoratzen dira, bai, ainbeste on egin zuten lege ayetzaz, eta euskaldun bakar bat sutik dagon bitartian ez dira astuko galdu genduben zorion artzaz.

Ogeita iru erritan biltzen zan Gipuzkoa-ko batzar-nagusia: Zestua, Segura, Azpeitiya, Zarauz, Irun, Ordizia (Villafranca), Azkoitiya, Oñati, Zumaya, Ondarrabiya, Bergara, Motriku, Tolosa, Oyartzun, Arrasate (Mondragon), Donostiya, Ernani, Elgoibar, Deba, Errenteriya, Getari, Eibar eta Zumarraga.

Batzar nagusiaren billerak egiten ziran egunetan, bi eleiz-jai ots aundikoak izaten zituzten: lenbizikoa Loyola-ko Done Inazio-ri donkitua, ta Birjiña Maria-ren Jayotzari bigarrena.

Zarauz-ko erri leñargian izan zuben bere asiera, bigarren aitatu degun eleiz-jayak.

Ondarrabiya gogor esituba zeukaten prantzesak, bañan ondarrabitar zintzo, bikain ta pizkorrak, ez bakarrik euki zioten sendo beren alderdiari, gañera bigaldu zituzten aidian prantzes gudariak.

Kondairak gogotik jaso duben egipen gogoangarri artan, etzan arkitu bakarrik ondarrabitarren bulartzutasuna, baita ere Birjiña Maria ren laguntza sendua.

Orrengatik, 1638^{-garren} urtian, batzar nagusiak Zarauz-ko errian egin zituben billaldietan, erabaki zuben andik aurrera eleiz-jai aundi bat egitia Birjiña Maria-ren Jayotzari donkitua. Eta orra nondik esagutu ziran geroztik bi eleiz-jai, batzar-nagusia-ren billaldiyak ziran egunetan.

Etzan lengo denboretan orain aña liburu nazte, kontu ta korapillu izaten Gipuzkoa-ko bearrak ordaintzeko. Gauzak erreñtasun aundia goan antolatzen ziran.

Ala, 1564^{-garren} urtian, Zarauz-en batzar-nagusiak egin zituben billaldietan, erabaki zuben, korrejidoriak, bizi-leku zeukan erriyak, ordainduko zitubela Diputazioa-ren beartasun guztiak, eta urrengo billal-diyan emango zitzayola aurreratzen suben guztia, eskaturik ontarako gañerako erriai bear zan laguntza.

Onlako errestasunakin antolatzen ziran denbora ayetan beartasun guziak. Fede ona bai zan orduban nagusi, jendeen artan.

Zarauz-ko biztanleak lanian trebiak izan oi dira; bai ibai ondoko lur

atseginetan, bai ichaso arro ikaragarrian. Esan nai da nekazariak eta arrantzaliak zirala.

Arrantza-ren gatik izan zituzten eztabai batzuek aldameneko erri Getari-kin.

Ichas gaiztoak beren errira irištea lajatzen ez ziyotenian, gelditzen ziran Getari-n zarauztar arrantzaliak eta ez alperrik galtzia gatik zekar-ten arraya, erri artan bertan saltzen zuten.

Ausi au Valladolid-ko batzarre edo Kanzilleriyak erabaki zuben 1763-^{ko} Epaillaren 15-^{an}.

Erabakide ontan, debekatzen zizayen zarauz-tarrai saltzia Getari-n bertakoak arrai mota ura bera salgai zeukatenian; bañan ematen zizayen baimena beste nonnai saltzeko.

Eragozpen oyek laster galdu ziran, eta gerostik arrantzaliak, aldu-benak alduben lekuan saltzen du arrapatzen duben arraya. Bai biar ere, ainbeste lan eta arraizkorekin arkitzen duben arrantza.

beste ichas-ondoko erriak bezela, nai zuben Zarauz-ek ere, zegoki-yon tankerako kai bat izan, eta 1851-^{garren} urtian eskatu zion batzar-naguzia-ri biar zan laguntza.

Batzar-naguziak, agindu zion bere arkiteto Mariano Jose Laskurain jaunari, ikusi zezala zer egin zitekian; eta egin ziran lanak jaun ura buru zala. Artarako sei milla duro biar izan ziran, eta ordaindu zituz-ten erdi bana batzar naguziak eta uri batzarrak.

Gero, zarauztarrak, kai aundiago eta erosoagoren sale zeuden, eta baita sayatu ere iristen ote ziran asmo ayek osatzera, bañan alperrik. Ortan gelditu dira Zarauz-en ichas baztarreko lanak.

CIPRIANO ZUFIRÍA



ZARAUZ

(Jarraipena.)

ELEIZAK

Noiz gipuzkoarrak Jaungoiko egiazkoa-ren erlijio donea esagutu ta artu zuten, ez dakigu. Makiñabat iritzi gai ontan agertu dira. Batzubek, Santiago apostolu doneak Gipuzkoa-ra berri ona ekarri zubela di-yote; bestiak berriz, Saturnino apezpikuak fedez-ko egiyak emen era-kutsi zitubela; badira esaten dutenak iruñatar Fermin apezpiku donea izan zala, ta baita ere, Marzial apezpiku biyotz beroduna zala diotenak.

Dala bat, dala bestia, edo dirala danak, batzubek lenago ta gerošia-go bestiak; argi ta garbi azaltzen dana da, apostoluen denboratik urruti gabean esagutu zutela gipuzkoarrak kristautasunezko berri zoragarriya.

Eta oraindik argiyago esagutzen deguna da, gipuzkoarrak esagutu zutenian egi illezkorra, beti betiko beragan biurtu zirala, berakin bat egiñik lurra dan bitartian autziko ez diran lokura senduakin.

Ala aitortzen digute Gipuzkoa-ko erri aundi ta chikiyak erakutsi-rik beren eleiz aundi, mardul, apain, ederrak. ¿Non arkituko da beste leku bat, emen aña ta emen bezin ederrak diranak, Jaungoiko gure Jaunari donkitutako eleiz berdin gabeak?

Zarauz-ko erria ere, beste gañerako gipuzkoar erriyen antzera, chit fedetsuba izan da, erlijio donearen ganako griña gogor ta bizikoa.

Eta eleiz ederrak eta apaiñak, eta ugari dakazki, bere fede sendoa-ren agerkai atsegiñaz.

Abetan agergarriyena Eleiz nagusiya da. Birjiña Maria-ren zerura igotzeari donkitua dago. Zazpireun ta geyago urte da alcha zala, ta ge-ruago emezortzigarren eunkidan berritu ta apaindu zuten arrigarritzko edertasunakin.

Eleiz ontako nagusitasun edo patronatua, Zarauz-ko jauregia-ren jabiak dauka.

Lenengo patronua, Gebara-tar Beltrán Ibañez Oñati-ko jaun argi-dotarra izan zan. Berari eskubide ori eman zion Fernando laugarren erregeak 1305^{-ko} Garagar-illaren 22^{-an}.

Noiz edo nola jaun onen gandik Zarauz-ko jauregiaren jabe-ari igaro zizayen eskubide au, ez dakigun gauza da; uste danez beren arteko eskontzaren baten bidez gertatua izan biar du.

Dakiguna da, zenbait autsi ta eztabai izan dituztela jauregi artako jaunak eleizako nagusitasunaren-gatik bai uri-batzarrakin baita ere eleiz artako apaizakin. 1492^{-garren} urterako ausi abek asi ziran ta geroztik ere makiñachobat aldiz izan dira.

Zarauz-ko erriyan, eleiz nagusiyaz gañera badira eleiz apañak; eta abetan ederrena Juan Batayatzalle donearen izeneko bakartegikoa.

Juan Manzisidor, Flandes-en erregearen goarpelari izandutako zarauztar argidotarrari zor zayo eche done au. Ipiñi izan nai zuen bere kontu 1608^{-garren} urtian, bañan erautzi nayez sayatu ziran eleiz nagusiko apaizak eta etzuben osatu bere asmoa 1619^{-garren}eko Ilbeltza-ren ama-biya arte.

Lenbizi, beste leku batian jaso zan bakartegia, baña denbora guchi iraun zuben an, bada 1617^{-garren} urtian aldatu zan orain arkitzen dan leku berera.

Len esan degun bezela eleiz eder eta egokiya da, ta zarauztar zintzoak joera aundiya dute aruntz.

Bi moja-eche daude Zarauz-en: bata Klara donea-ren izenekua, ta bestia Irutasun-ari donkitua.

Lenengoa, Zarauz eta Ganboa-tar andre Mari Ana Warthon-go Buker-en alargunak, eta bera bi alaba Maria ta Klarak ipiñi zuten 1610^{-garren} urtian. Ama-alaba ayek Zarauz izendatutako jauregia-ren jabiak ziran, ta jauregi artan berean egon ziran mojak amar urtian, bakartegi berria egin bitartian. 1621^{-garren} urtian irichi ziran beren eche berri done-ra. Bi urtez lenago, au da 1619^{-ko} Uztailla-ren 20^{-an}, uri batzarrak eta eliz-gizonak erabaki zuten andik aurrera jai egitia Klara donea-ren egunian. Iruña-ko Apezpikuak ontzat eman zuben erabakide au.

Beste bakartegia Pedro Zarauz eta Ganboa-k jaso zuben 1619^{-garren} urtian, Iruña-ko Apezpikuaren baimenarekin, Asieran Alzola-ko balle-ran ipiñi zan, gero biurtu zan Zarauz-ko errira.

Erri ontan dauden eleizachoak orain aitatzera guazenak dira:

Pelayo donea-rena, Ibayeta-ko Martin donea-rena, Urtetako Sebas-

tian donea-rena, Barbara donea-rena, Pedro donea-rena ta Elkano-ko Pedro donea-rena.

Azkeneko au Aya-n arkitzen da, bañan eleiz kontuan Zarauz-ko eleiz-nagusiaren mendekoa da.

Antziñako denboratik iruki dute Pelayo donea beren zaitzalletzat zarauztarak. Eta onen izeneko eleizachoa zarrenetakoa izan da. Guztiz zarra zan ta iya lurra juan zegola ikusirik, erabaki zuten berriya egitia 1844-garren urtian, ta berriya egin bitartian eleiz nagusira ekarri zuten Donea-ren talluntza maitagarriya.

Eleizacho berriya egiteko Juan Jose Belaunzaral, echegille azkar eta trebea ipiñi zuten buru, ta ekin ziyon lanari gogor, bikain ta eroso.

Bañan dirubak aiturik, laizter gelditu biarrrian arkitu zan. Orduban Narros-ko markesak bere kontu jarraitu asi zion Lanari. Ori jakindu zanian erriyan, posez bete ziran zarauztar zintzoak, eta eskilla soñuak, chistu-en oyartzun alayak, barrengo pozkida kanpora atera asi zuben, ta echeetako leyo guziak agertu ziran gau-argiak in apaindurik.

Eleizachoa bukatu zan beaz, eta 1851-ko Garagar-illaren 24-an bedeinkatu zan olagara aundiakin. Ortarako eraman zuten eleiz nagusitik Pelayo Donea-ren talluntza ta baita ere erliki maitatiyak.

Erliki abek ziran: Donea-ren alkandora puska bat bera il zanian odol tantoakin bustiya, ta bere soñaren bi zati odolez bustiak alkandora bezela.

Mesanagusia ederra izan zan, ta gero MarkesaK bazkaria eman zien Apaiz, Alkate, Errejidore ta erriko jaun batzubei.

Artzaldian festa aundiak eta pozgarriyak izan zituzten, ta azkenian Markesa-ren kontu upel bat chakolin eman zizayen erriko gazte guziaz. ¡A zer umoria arratsalde ta arrats artan!

Barbara donea-ren eleizachoa izan liteken leku polit eta atsegiñean arkitzen da. Mendi koñkor baten gañian dago ta ikusten da andik, asi Biarrizko ichaz-argitik eta Machichako-ko muturreraño.

Eleizacho au egiteko asmoa 1704-garren urtean artu zuten. Ontarako bildu zuten jendeak borondatez ematen zizken limosnak eta ontaz gañera Zarauz-ko ta Getari-ko arrantzaleak arrapatzen zituzten baleen koipien baliyoakin kontatu zuten.

Eleizacho au bedeinkatu zan 1709-ko Orrilla-ren 3-an.

CIPRIANO ZUFIRÍA

(Jarraituko da.)

ZARAUZ

(Jarraipena.)

JAUREGIAK

Asieran esan genduen bezela: «Zarauz baño len Zarauz»; uria baño len jauregia zan. Beaz jauregia badala eziñ ukatuko degu, bada uria baño lenago bazan.

Ez da ordia uzte izan biar lengo denbora zarretako jauregia oraindik ere zutik dagola, ez, arraz puzkatu, chetu, lurperatu zan guda denboran.

Bañan leku berean alcha zuten berriro 1536^{-garren} urtian, orain «Narros-ko Markesaren echea» deitzen dan jauregi ederra, Granada-ko dukia jabe daukana.

Leku guchitan arkituko dira eche oni bezin egiaz jauregia abo betian deitu lezaikiyotenik. Jauregia da kanpo ta barren, goitik eta betik, alderdi danetatik.

Kondairaz ezin geyago goitu liteke bere izena, Zarauz-ko uri alaya-ren azi pizkorra dala esatiakin bezela.

Kanpotik bere zartazun maitetsuakin, bere apainketa jatorrakin, bere sendotasun arrigarriakin zoragarritzko begiraldia dauka alde guzietatik. Gañera inguratzen dute maitero esituaz, esibazo loretegi ta baratz zoragarriak, eta azkenik ichaso arroak bigaltzen dizkan бага sendoak lertzen dira bere oñetan, miliñkatuaz jauregi-aurria bere afar zuri jostalariakin.

Barrena sartu ezkerro berriz zenbat edertasun arkitzen dan gela gaingañeko ayetan es liteke esan. Ango gauza denboren denboretako edertasunak erakusten dizkigutenak, angó apainketak; badago anchen zer ikusiya.

Bañan ez da eche au Zarauz-ko uri leñargian dagon jauregi baka-

rra. Badira makiñachobat geyago. Zarretakuak ez daude aitatu deguna bezin ondo gordiak, bañan alare igartzen zaye lenago izan dituzten apainketa zoragarriak.

Amaida garren eunkida baño lenago jasuak, bestiak geroñiago badira zenbait jauregi, ta abetatik bat «Torre-luzea» izendatzen dana.

Zarauz-ko erri-ra iriñsten diran jende guziak, arriturik gelditzen dira ikusten dutenian karrika tartian eche gain gañeko au.

Bere neurri egokiak, lau aldetara murru berdiñak aunditasuna gallanki agertzen dutenak, eta danak leyo polit eta beste apainketa ederrakin ornituak. Lengo denboretako jauregi zarren ichura oso osua dauka.

Jauregi zarraz gañera, badaude berriak ere. ¿Nola ez, uda guzietan sendi argidotarrak etortzen badira uri ontara, ichaz-baztar zoragarri ontan egun alayak igarotzera?

Beti izan du izen aundiya Zarauz-ek udako erritzat, bañan urtetik urtera izen au geruago ta geyago indartzen da.

Isabel bigarrena España-ko erregiña zala Zarauz-a etorri zan urte azkotan uda igarotzera ta len aitatu degun Narros-en jauregi gain gañekoan egoten zan.

Orain Zarauz-en ez dira egoten erregiak, baña bai bere ondorengo jaun argidotarrak eta beste makiñabat sendi ots-aundikoak.

Eta batzuben eta bestiak jaso dituzte jauregi ikusgarriak edertubaz uria-ren baztar guziak.

Abetatik bat Santillana-ko markesak egindakoa da. Ikusgarria da guziz. Sartu ta. beriala dauka gela edo leku aundi bat guztiz ederra, ta apainketarik jatorreua bezela goi-aldian idatziak dauzka «Gernika-ko arbola-ren» itz gogoangarriak.

Ezin aitatuko ditugu jauregi guziak, bañan danak ez badare, ara zein diran gogoratzen geranak: Lezera-ko ta Bega-ko dukeenak; Berna-ko, Agilatuyente-ko, Billapadierna-ko, Linares-ko, Billadarias-ko ta Kastelfuente-ko markesenak; San Luis-ko kondiena; Balde-erro ta Rodas-ko bizkondienak; eta Abella, Bera, Oliden, Endaya ta beste gañerako jaun argidotar askorenak.

Egin dira jauregi abetzaz gañera, ostatu eder galantak. Jakiña da gaurko egunian ostatuak dirala urietan egiten diran eche aundi, eder, ikusgarrienak. Ez digo orain lengo denboretako gauzik.

Esaten da erromatarrak ehetik kanpora bizitzen ziran jendiak zira-la, ta orrengatik arkitzen dirala beren echeetan gela chiki, illun, ituak,

eta kanpuan berriz urez-tegi, jai-leku, ta plazak, aundi, galant, zabal, zelayak.

Gure aurrekuak echian bizitzen ziranak ziran ta jaso zituzten orain arritzen gaituzten jauregi gain gañekuak.

Ostera, ¿echetik kanpora bizitzera, ote guaz oitura berrietan?

Ez dakit, bañan ikusten deguna da eche-bizitzak kayolak bezelakuak egiten ari dirala, ta ostatuak berriz aundiak, mardulak, iñun ezin kabitut diran bezelakuak.

Badira abetatik ederrak Zarauz-ko urian jasuak; eta beste tokietan badira, ondo biarrekua da udan ainbeste jende sortzen dan lekuan.

Eta ez dago jende guchitzeko ichurik bada geruago ta errestasun geyago arkitzen da uri atsegiñ ortara iristeko.

Lenago saldizko kochiak bezterik ez zeuden. Denbora askuan *La Vascongada* deitzen ziran batzubek ibiltzen ziran Donostitik Bilbao-raño.

Burni bideak egiten azi ziranian guchitzen juañ zan koche-en ibiltea. Lendabizi Durango-raño bakarrik juaten ziran, gero Elgoibar-raño ta gero batere ez.

Denbora ayetan luze egiten zan Zarauz-araño irištea. Anai-arteko guda amaitu ondorian, nola Oriyon ez baizegon zubirik, ontzi batian sarten zan koche ta guzi, ibaya batetik bestera igarotzeko.

Orain erreštusun aundiya dago ta nola nai egiten da Zarauz-tik juañ etorriya.

Ortarako dijua andik burni bidia, *Ferrocarriles Vascongados* deitzen dana, ta geldi-leku edo eztaziyo ederra dauka. Eta oraindik obetuago ibiltzeko asmua daukagu, bada bai bidia ta bai gurdihak ere laburrago ta ederkiyago jartzekuak dira.

CIPRIANO ZUFIRÍA

(Jarraituko da.)



LOYOLA — Juan Francisco —
1781.

LOZANO — Pedro — 1736.

LUBELDIA (¿ZUBELDIA?) —
Juan José — 1803-5.

LUEJO — Jerónimo — 1827.

LUENGAS Y ELEJALDE — Jo-
sé Joaquín—1796.

LUENGAS RAIGADAS — Ju-
lián José — 1788.

LUMBRERAS — Carlos José
—1830-31.

LUTZAR (LUZAR) — Martín é
Iñigo — 1650-53.

LL

LLACER — Vicente — 1792.

LLAGUNO — Gaspar — 1794.

LLANO — Lope — 1650-60.

LLANO E IBARRA — Juan —
1775.

LLANO Y LLANO — Juan—1792.

LLANO Y ORCASITAS — Fran-
cisco — 1702-4.

LLANO Y URRESTI — Fran-
cisco Xavier — 1761-63.

LLANOS — Santos — 1662-63.

LLASER — Vicente Tomás —
1790-91.

JUAN CARLOS DE GUERRA

(Continuará.)

ZARAUZ

(Jarraipena.)

SEME ARGIDOTARRAK

Zarauz, aide-nagusietako abisen ots aundikua izan da gizaldi askotan. Jauregi ospetsuko semiak asko izan dira euskaldunen artian beren askartasunez gai guzietan asalduta izan oi diranak, eta beren izen argidotarrak goitutzen dute beren uriko leñargitasuna.

Seme ospetsu aben artian lenengo agertzen zaigu Fortun Sanchez Zarauz ta Ganboa. Pizkorra, trebia, asko jakina, goyeneko malletara irichi zan ta 1327^{-garren} urteko Urrilla-ren 20^{-an}, Alonso errege amaikagarrenak, Sebilla eman zuben gallaldi baten bitartez, Gipuzkoa-ko zuzenlari nagusi aukeratuta izantzan.

Aita bezela izendatzen zan bere semia: Fortun Sanchez. Bulartsu ta pizkorra zan. Eta bere portiztasun sendua erakutsi zuben galanki 1342^{-garren} urtetik 1344^{-garren} urtia bitartian, Aljeziras-ko uriaren erchituran. Alperrik bazan ere arkitu zan 1350^{-garren} urtian Jibraltar-ko erchituran, ta beti bezela pizkor eta sendo azaldu zan Zarauz-ko seme argidotarra.

Ainbeste egipenek zerbait esker ondo biarrak zituben, ta erregeak esker oyek opatu zizkan aukeratubaz aita lenago izan zuben lekurako. Au da izendatuaz Gipuzkoa-ko zuzenlari nagusiya.

Juan Ortiz Zarauz, eta bere bi seme Ortuño ta Fernando-k egipen aundiak egin zituzten Enrike laugarren ta Errege Katolikoen denboran. Orduko guda gogor odolgiroetan aurrerenetakuak eta pizkorrenetakuak izan ziran iru zaraustar bikain abek.

Gizaldi artan bertan ta errege askena aitatu ditugun oyekin berekin, berezitu zan Lope Martinez Zarauz jauna, ta bere askartasuna ta

asko jakitea eskertu zituben erregak, Erregearen batzar edo *Consejo Real-eko* lagun aukeratuaz. Etzan gizaldi ayetan erreñ ain goiko malle-tara irištea, ta orrenbesterekin asaltzen da zenbaterañokea zan Lope Martinez Zarauz jaunaren trebetasuna.

Abisen berekua zan Juan Ortiz zarauz-tar portitz eta bulartsua. Gipuzkoa-ko gudarien buru edo koronel zan 1523 eta 1524^{-garren} urtian, Bearne-rako jua aldia ta Ondarrabi-ko ertsitura gogoangarria izantzan egunetan. Bai batian ta bai bestian, biyetan agertu zan Juan Ortiz beti bezin pizkor eta azkarra. Au ere Erregearen batzar edo *Consejo Real-eko* lagun egondu zan.

Juan Lopez, ichas gudari trebea zan. Euskal-erri-an, ichas bastarre-ko uri alayetatik sortu izan dira ichas gixonak, banan banakuak, eta ludi guzian arriturik esagutu izan dira beren egipen gogoangarriak. Ayen antzekua zan, zarauztar Juan Lopez argidotarra, ta asaldu zuben bere bikaintasuna 1535^{-garren} urtian, gipuzkoar ontzi gualariakin Tunez ar-tzera jua zanian.

Gomez de Zarauz, deitzen zan beste zarauztar ospetsua, Felipe lau^{-garren} erregearen serbitzari edo *ayuda de cámara* egon zana.

Emezortzi garren eunkidan ere sortu zan jauregi leñargitik beste seme ospetsu bat: Inazio Maria Korral eta Agirre izendatzen zan, ta 1779^{-garren} urtian bigaldu zuben Karlos irugarren erregeak, Dinamarka-erriburura eskubide guzi guziakin bere bialkin bezela.

Ez da ordia uste izan biar orain arte aitatu degun jauregitik baka-rrik irten dirala zarauztar argidotarrak, beste makiñabat ere izan dira ots aundikuak eta abetatik bat Juan Manzisidor izendatzen zana.

Felipe irugarrenak Flandes-ko lurretan bere goarpelaritzat iruki zu-ben, ta baita ere errege beraren gudako batzarraren iritzmalle.

Juan Inazio Ayestaran da beste zarauztar ospetsu bat. Karlos iruga-rren ta laugarrenak, eta Fernando zazpigarrenak, ekadoiko goarpelari iruki zuten ta baita ere Kastillako batzar nagusiko iritzmalle.

Prantzeztian etzuben Napoleon-tarren agintepian egon nai ta Kadiz-ara itzul egin zuben, ta etzran ezerchotan sartu, Fernando berriro Es-paña-ra biurtu arte ta erregeak eman zizkan orduban len zeukazkiyen eskubide guziak.

Madrid-en il zan 1819^{-garren} urtian, irurogeita lau urtekua zala. Za-rauz-en egiña zeukan jauregi eder apain bat, bere ustez an azken ur-tiak igarotzeko asmoan; bañan ustiak ustelak gertatu zitzaizkan ta bere erri kutunetik urruti aldendu zan ludi ontatik.

ZARAUZ

(Amaya.)

PURUBE ECHIAK

Azaldutugu Zarauz-ko urrian esagutzen diran jauregi eder apañak, esan ditugu bertako seme argidotarren izen gogoangarriak; orain aitatu ditugu bertako purube echiak eta berak erakutsiko digute Zarauz-en lengo aunditasun jatorra.

Gai ontarako artuko degu gidari Juan Karlos Gerra jauna, ta bere liburutatik aterako ditugu biar ditugun berriak.

Purube echietako bat Agirre deitzen zan, ta bere eskutarman azalakai au zeukan: *Rebeladas y ganadas*.

Arbestain ta Argoin, Argoin edo Argoarin ziran beste bi eche otsaundikuak.

Urdeta-ko echadian zegon Echebeste, ta Urteetakoan Eleizamendi. Ichaz baztarrian berriz, Done Pelayo izendatutako eleizachoaren inguruan Espilla.

Uri berekuak ziran Gurmendi, Ibaeta edo Ibayeta, Inurritza edo Inarritza, ta b e s t e eche Inurritza izenekuak eskutarmanzeukan urrez idatzia: Inurritza.

Kafranga, Bizkaya-ko Gomiz-tik etorriya zan.

Lerchundi izenekua bazan Aya-n ta baita-re Zarauz-en.

Eta gañera esagutzen ziran Ormaechea, Portu, Portu (Peyze goyena) ta Urraga.


Lenago makiñabat aldiz aitatu ditugun Zarauz izenekuak ba ziran bi eche. Batek bere eskutarmetan ichaz bagaren gañian ipiña zeukan: «Ez ikutu». Bestiak berriz: «Ez ikutu ez pare erreko zaitu».

AMAYA

Azkenetara irichi gera.

Ikusi degu Zarauz-ko uriaren asiera jauregi bat izan zala, ta orain arkitzen degu uri polit atsegiñ au danak jauregia dirudiela, bere edertasun, bere apaintasun berdin gibekuakin.

Ichaz baztar zoragarria da. Ango ondartza apal, estitsua. Ango zelai ta baratz ikusgarriak. Ango eche, jauregi, plazacho, karrika gain



ZARAUZ.—Zigordia kale-ko ate bat.

gañekuak. Ez da arritzeko egunetik egunera Zarauz-ko uri leñargiaren izen maitagarria esagutubago ta goitubago izatia alderdi guzietan; ta ain guchi alderdi guzietatik jendia etortzia uri polit ontan igarotzera udako egun estitsuak.

Gañera, beren aurrekoen giza, gaurko eguneko zarauztarrak pres-tubak dira ezin esan aiñ bat, oitura onekuak, guztiz atsegiñak.

Ala goitutzen du Gipuzkoa-ren ta Euskal-erria-ren izena, bere izen bera goitutzen duben bezela.

CIPRIANO ZUFIRÍA